

2

0

DK

Programazioa
ZINEMA ETA
IKUS-ENTZUN-
EZKOAK

2

1

Harkaitz Cano

K A N D E L I K A R A

*Bumeli buruzko
film baterako
apunteak*



IX

Nosferatu bilduma

Programazioa ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK



Los olvidados - Nosferatu Buñuel



Buñuel en Toledo - Argazkia Carlos Saura - Nosferatu

2021ean, gure ikus-entzunezko jardueren hartzailleek beren konpromisoa erakutsi dute pantaila handian emandako zinearekin, esperientzia kolektiboa den aldetik, ondo erantzun baitiote, mugak muga, gure programazio instituzionalaren ahaleginari eta beste erakunde batzuekin elkarlanean egindakoari.

Luis Buñuel izan da ardatz nagusia, Historiako zinegilerik handienetako bat, Donostia Kulturaren Nosferatu programazioak haren filmografia osoa eman baitu, Tabakalera eman ere, ohi bezala. Hainbestearinokoa izan da arrakasta, non saio batzuen bigarren emanaldia programatu behar izan baitzen urtearen zati batean.

Gure ohiko zinemaldi nagusiez gainera – Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea eta Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia (bere atala du honek memoria honetan)–, 2021ean DK-k diruz lagundu dituen zinemaldien artean aipatu behar dira **XIV. Dock of the Bay**, zeina ekainera aldatu baitzen, **Itsaspeko 45. Zinemaldia** eta **Donoskino V**, film laburrei eskainia.

Beldurrezko Astea:
9400 ikusle inguru zine aretoetan,
eta 6000 ekitaldi paraleloetan.

Giza Eskubideen Zinemaldia:
3800 ikusle presentzialak,
5816 ikusle online (ikastolak) eta
3866 ikusle ekitaldi paraleloetan.

Mai Zetterling

(1925, Västeras – 1994, Londres)



Mai Zetterling Zikloa

Menditouren Zinea eta Mendia saioek urtarrilean jarraitu zuten, oso harrera onarekin. Oso harrera ona izan zuten, halaber, **Zinegoak** zinemaldiaren luzapenak (apirilean) eta **Emakumeen Etxearen** ziklo berriak, zeina oraingoan Mai Zetterling zinegileari eskaini baitzitzaion.

Antzoki Zaharrak hainbat eratako **gala ikus-entzunezko eta sozialak** hartu zituen: Esciviren ikasturtea, Larrotxeneko ikasturtearen amaiera-ekitaldia -gure Bideoaldiarekin-, AGISAS gala eta Begiradak lehiaketaren amaierako gala. Victoria Eugenia Antzokian, Atzegiko ikasleek beren trebeziak erakutsi zituzten.

Tinkorekin hitzarmenez lotutako **Euskara Zine Aretoetara** programak online formatuan jarraitu zuen ekainaren azkenera arte, eta udazkenean aurrez aurreko eredura itzultzen saiatu zen poliki-poliki.



Valentina - Zinegoak

Bang Bang Zinema urtearen hondarrean baino ez zen berriro jarri martxan, zine-aretoak edukiera osora itzuli zirenean, eta bi saio programatu zituen, bat Beldurrezko Astearekin lankidetzan.

Bukatzeko, **Kresala zineklubak** bere ohiko saria eman zuen berriz ere urte hondarrean, film bat proiektatzearekin batera. Oraingoan, Afrikar Zinearen Jaialdia omenduz.



Everest -The Hard Way - Menditour 2021